



JARDUERAK EGITEKO IDEIAK

Hondakinak Prebenitzeko Europako Asteak jendearen kontzientziatzea handitzea du helburu eta, hartara, hondakinak nola murriztu daitezkeen erakusten duten ekintzak bultzatuko ditu.

Hondakinak prebenitzeari eskainitako jardueren adibideak sartu ditugu atal honetan (azken buruan, jendea hainbat gairen inguruan kontzientziatzea da; esaterako, jarduera ekonomikoarekin, erosketarekin, kontsumoarekin, berrerabilpenarekin... lotuta dagoen hondakin-ekoizpena. Jakina, ziurrenera, **zuk ideia horiek aldatu beharko dituzu jarduerak zure testuingurura egokitzeko, eta zure xede-jendea kontuan hartuta.**

Lerrootara ekarri ditugun jarduerak hondakin prebentzioari buruzko kontzientziatzea sustatzeko ekintzen adibide hutsak dira: zuk bestelakoak proposa ditzakezu.

Agintarientzako eta elkarteentzako jarduerak

Hondakin gehiegi sortzen direla sentsibilizatzeko jarduerak:

- Hondakinek ingurumenean, gizartean eta ekonomian duten eragin garrantzitsua nabarmentzea edota horri buruzko argibidea ematea, bai eta hondakinak murriztu beharra ere.
- Eremu bat bisitatzea, hondakin eta haien prebentzioaren arazoa lantzeko.
- Tokiko hainbat eragile biltzea, egitasmo bateratu batean lagundu dezaten (eskolak, enpresak, industria, etab.).
- Proiektu horretako kideekin mintzaldi/eztabaida bat antolatzea.
- Youtube, Facebook eta halakoetan txostenak landu eta argitaratzea.
- Ikastaroak antolatzea (adibidez: elikagaiak paketatzearen aurkako eta sukaldeko erabilera ez-gomendagarrien aurkako ikastaro bat), mintegiak, etab.
- Instalazioak ikusteko bisitak antolatzea (konpostajea, ekonomia soziala, eraikinak zaharbertzeari, produktu elektrikoak konpontzeari edo produktu orokorreari buruzko mintegiak antolatzea), bai eta eztabaida-saioa ere.
- Hondakinik gabeko otamen bat antolatzea.
- Jarduera bat antolatzea edo postu bat jartzea astean behingo merkatu batean edo merkatu tematiko batean, jaialdietan, erakusketa tematikoetan, etab.
- Bilgarriak kentzeko jarduera bat antolatzea denda baten kutxaren irteeran.
- Jardueri eta/edo emaitzei buruzko erakusketak sustatzea.
- Lehiaketa bat antolatzea.
- Film baten proiektzioa eta hari buruzko eztabaida saio bat antolatzea.
- Tresnak garatzea, jendearen kontzientziatzea eta informazio publikoak sustatzeko.



Hobeki ekoiztea:

- Erosketa-gurditxoak alderatzeko jarduera bat antolatzea (bilgarri gehiago edo gutxiago).
- Pixoihal berrerabilgarriari buruzko erakustaldi-jarduera bat antolatzea.
- “Ur taberna” bati buruzko jarduera bat antolatzea (hainbat ur mota begiak itxita dastatzea, txorrotako ura barne).
- Zabor-postaren aurkako eranskailuak sustatzeko jarduera bat antolatzea.

Produktuen bizitza luzatzea:

- Produktu bilketa bat antolatzea, berrerabiltzeko (edo jarduera horretan diharduten erakundeekin elkarlanean aritzea).
- Bigarren eskuko eta trukeko merkatuak antolatzea.
- Produktu gastatu edo zaharrak eraldatzeari buruzko mintegiak antolatzea (musikatresnak, trapuak, panpinak, etab.), edo apaingarriari buruzkoak.
- Bizikletak konpontzeko eta ukitu txikiak emateko (jostea, etab.) mintegi bat antolatzea.

Hondakin gutxiago botatzea:

- Auzoko konpostajea hastea; holako instalazio bat ikusteko bisita antolatzea.
- Sukaldaritza ikastaro bat antolatzea janari hondarrak baliatzen ikasteko.
- Etiketak irakurtzen ikasteko mintegiak antolatzea (iraungipen-datak, etab.).

Enpresa/industriarako jarduerak

Hondakin gehiegi sortzen direla sentsibilizatzeko jarduerak:

- Bezeroekin lotuta dauden ekintzak sustatzea (lagin bat establezimendu batean, erosketa-gurditxoak alderatzea, lehiaketak, etab.).
- Langileen kontzientziatzea handitzea (erakusketak, informazio-apalategiak, jarduerak, mintzaldiak, etab.).
- Jendearentzako geltoki batean jarduera bat antolatzea.
- Ekoizleak animatzea.
- Tresnak argitaratzea, jendearen kontzientziatzea handitzeko, informazioa zabaltzeko, etab.

Hobeki ekoiztea:

- Ekintza bat antolatzea, bulegoko hondakinak prebenitzeko (bereziki, papera, paper gutxiagorekin inprimatzea, etab.).
- Ekintza bat antolatzea bilgarriak murrizteko (bilgarri berrerabilgarria, etab.)





- Produktuen eta bilgarriaren diseinu ekologikoan oinarrituriko ekintza bat sortzea (ahaleginen emaitzak erakustea, diseinu ekologikoa duen produktu berri bat ateratzea, etab.).
- Ekoizpen-katea ahalik eta gehien hobetzeko ekintza bat antolatzea isurpenak murrizteko.

Bezeroentzako

- Erosketa-poltsa berrerabilgarriak sustatzearen aldeko ekintza bat sortzea.
- Herritar ekologikoaren fideltasunezko txartel bat sortzea, ekintza ekologikoak saritzeko.
- Supermerkatuetan informazio-etaulak jartzea, hondakin gutxien zer produktuk sortzen duten jakinarazteko (berariazko produktuak; kargagarriak; aleka edo bilgarri berrerabilgarrikoak; bilgarri handiak, galtzen ez diren elikagaientzako; produktu gozagarrien edukiontziak, flaskoak, etab).
- Bezeroei erosketa-poltsak banatzea, alferreko erosketarik ez egiteko (banaketa handiko enpresa/industriarako).

Enpresan/industrian:

- Ingurumenarekin bat datorren erosketa-politika bat egitea bulego-horniduretan, ekoizpen-ildoetan, sukaldean, etab.
- Ura emateko makinak jartzea.
- Katiluak onartzen dituzten kafe-makinak jartzea, plastikozko edalontziekin soilik ibili behar izan gabe.

Produktuen bizitza luzatzea:

- Ordenagailu eta altzari zaharrak ekonomia sozialari, eskolei... emateko ekimenak antolatzea.
- Bilgarriak, hozkailu eramangarriak eta abar berreskuratzekeo jarduera bat abiaraztea.
- Aprobetxatu daitekeen guztia berreskuratzea, artxibo, karpeta eta eraztun-karpeta berrerabilgarriak ezabatzerakoan, edo bestela, udal eskolei ematea.
- Produktuak konpontzeko jarduera bat antolatzea, konponketak sustatzeko.

Hondakin gutxiago botatzea:

- Hondakinei aurrera hartzeko jarduera bat sortzea sukaldaritza-proiektuan (prestaketa eta kontsumoa).
- Konpostatzen hastea, etxeko konpostajea sustatzea, etab.



Europar Batzardeak
lagundurik

www.ewwr.eu





Hezkuntza-erakundeentzako jarduerak

Hondakin gehiegi sortzen direla sentsibilizatzeko jarduerak:

- Hurrekin elkar eragitea eta haiei hainbat galdera egitea: zer hondakin sortzen dituzten, eskolako eta eskolaz kanpoko ekintzen gainean zer dakiten.
- “Ideia-zaparrada” bat antolatzea, eskolako hondakinak murrizteko bidez.
- Hondakinen arazoaz eta haien prebentzioaz arduratzen den instalazio bat ikusteko bisita antolatzea (konpostaje-instalazioa, konponketa-tailerra, bigarren eskuko gauzen denda, etab.).
- Tokiko eragileak elkartzea, proiektu bateratu bat lantzeko (eskolak, empresas/industria, etab.).
- Mintzaldi bat antolatzea edo film bat ematea, bai eta eztabaida-saio bat ere.
- Youtuben, Facebook eta gisakoetan txostenak landu eta argitaratzea.
- Jarduera-erakusketa edo emaitza-erakusketa bat antolatzea, inguruan bizi diren gurasoentzako; ideia-lehiaketa.

Hobeki kontsumitzea:

- Eskola-gai ekologikoak sustatzeko ekintza bat antolatzea.
- Eskoletako jantokietan jarduerak antolatzea.
- Bilgarri gutxiagoko elikagaien dastaketak sustatzea.

Produktuen bizitza luzatzea:

- Produktuak berrerabiltzeko bilketan antolatzea.
- Brikolaje-jarduerak antolatzea, materiala berrerabiltzeko eta erakusketa bat egiteko.

Hondakin gutxiago botatzea:

- Paper-kontsumoa murrizteko erronka bat planteatzea: alde bakar batetik inprimatua dagoen papera berrerabiltzea (birziklapen-paperak), orrien bi aldeak erabiltzea, zaborpostaren aurkako eranskailuak itsastea, inprimagailuetako eskuliburuak erabiltzea.
- Elikagaiak biltzearen aurkako proiektu bat abiaraztea.
- Konpostatzen hastea.



Europako Batzordeak
lagundurik

www.ewwr.eu

